

## GURE PAZKO KUKUA

*Doinua: "Iparragirre abila dla"*

1

Anai-arrebok gaur dakartsuet  
sekulako albistea,  
hau zuei esan gura deuntsuet  
ta zuek hau sinistea:  
Gure Pazko kukua  
da Jesus Berbiztua,  
poztu dedila tristea.  
Gure azkena ez da hiltea,  
horren ondoren biztea.

2

Kukua entzun gura badozu  
zoaz bakarrik basora,  
ta hurreratu isil-isilik  
astiro bere ondora.  
Biztu Danari entzun  
zer esan gura deuntsun,  
geldi, ez joan inora;  
isildu eta fede-argitan  
zeu sartu bihotz-hondora.

3

Kukuak dino: "Negua joan da  
badator udabarria",  
bedeinkatua izan dedila  
kukuaren eztarria!  
Jesus kateak eten  
eta lurpetik urten,  
botaz hilobi-harria;  
Agur Heriotz! Betor Jesusen  
betiko bizi barria.

4

Kukuak jarri arrautzak eta  
kantuz batetik bestera,  
txantxangorriak maitasun haundiz  
kume barriak atera.  
Biztuaren hazia  
bateoko grazia,  
Jaungoikozko izaera;  
Espiritua dator emoten  
etenbako haziera.

5

Kuku kantua entzun orduko:  
"Ba ete daukat dirurik?",  
Ez dakidana gure kukuak  
ba ete daukan bankurik...  
Jesus baino hoberik  
ez kuku, ez besterik,  
nago ni hau sinisturik:  
Zugan kabia egin nahi badau  
zuk ez ukatu lekurik.

6

"Ekin ta ekin hor ibili naz  
azkenerako mututu,  
barrero ere etorriko naz  
ez zaitezela estutu".  
Gero ta barrurago  
Jesus guregan dago,  
agiri edo ezkutu.  
Pazko kukuak ekin deiola  
joten kuku eta kuku.